



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

Industria Sailburuordetza

Proiektu Estrategikoen eta Industria-
Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Industria

Dirección de Proyectos Estratégicos y
Administración Industrial

**EBAZPENA, PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN
ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BITARTEZ AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEN BAITA
HONAKO HONEN INGURUAN: XEDAPEN OROKOR BAT PRESTATZEA, 513/2017 ERREGE
DEKRETUAZ ARAUTUTAKO SUTEEN KONTRAKO BABES-INSTALAZIOEN EREMUAN
ZENBAIT ALDERDI GARATZEKO.**

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du xedapen orokor bat prestatzea, 513/2017 Errege Dekretuaz araututako suteen kontrako babes-instalazioen eremuan zenbait alderdi garatzeko.

Aurretiko kontsultaren xede izango dira etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona fisiko eta juridiko guztiak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, interes ekonomiko eta sozialak ordezkatzan dituzten elkarte eta antolakundeak, erakunde publikoak eta eskubide edo interes legitimo indibidualen nahiz kolektiboen titularrak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluko 1. zenbakiak ezartzen duenez, kontsulta publikoa bideratuko da legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, administrazio eskudunaren webgunearen bitartez. Kontsulta horretan, jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.

Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Akordioaren bitartez, izaera orokorreko xedapenak idazteko Prozedura Aplikatzeko Jarraibideak onartu ziren. Horien arabera, aurretiko kontsulta hori izaera Orokorreko Xedapenaren izapidetzea sustatu duen organoak edo zuzendaritza-zentroak gauza dezake, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Egoitza Elektronikoen Iragarki-taula erabiliz horretarako.

Gobernu Kontseiluak xedapen orokorrak egiteko prozedura ezartzeari buruzko jarraibideak onartu zituen erabaki baten bidez, eta bertan ezarritakoarekin bat eginez, *Legegunean* esekiko da eranskinean jasotzen den informazioa. Ondoren, ekarpenik jasotzen bada, banaka edo multzoan gaineratuko dira horiek. Halaber, gobernu irekiaren *Irekia* plataformara eraman beharko da informazio hori, eta, bertatik, egoitza elektronikoa argitaratutako iragarkirako esteka egon beharko da, alegazioak modu formalean aurkeztu ahal izan daitezen xedapen orokorrak egiteko prozeduraren barruan. Horrela, sarbide elektronikoa duten askotariko guneen artean informazioa bi noranzkotan konektatzea ahalbidetuko da.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



Kontsultaren hartzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari helarazi ahalko dizkiote beren iritzia, iradokizunak edo oharra, eta hamar eguneko epea izango dute hori egiteko, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak esleitutako eskumenen arabera jardunez, eta Gobernu Kontseiluaren lehen aipaturiko erabakiarekin bat eginez (erabaki horren bidez, xedapen orokorrak egiteko prozedura ezartzeari buruzko jarraibideak onartzen dira, eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abenduaren 12ko 132/2017 Ebazpenean jarri zen jendaurrean), honako hau

E B A Z T E N D U T

Lehenengoa.- Aurretiko kontsultaren mende uztea xedapen orokor bat egiteko proiektua. Bada, Ebazpen honen eranskinean aipatzen diren irismena, oinarria eta xedea izango ditu kontsultak.

Lehen aipaturiko manuak betetze aldera, *Legegunean* esekiko da eranskinean jasotzen den informazioa, eta, ondoren, ekarpenik jasotzen bada, banaka edo multzoan gaineratuko dira horiek. Halaber, gobernu irekiaren *Irekia* plataforman ere esekiko da informazioa, eta plataformatik egoitza elektronikoan argitaratutako iragarkirako esteka egon beharko da.

Bigarrena.- Etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektu eta antolakunde adierazgarrienek hamar eguneko epean helarazi ahalko dute Ebazpenaren eranskinean garatzen diren alderdiei buruzko iritzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Egun horiek igarotakoan, xedapen orokorrak egiteko prozedura osatzen duten gainerako izapideak egiten jarraituko da.

Vitoria-Gasteiz, sinadura-data.

ZIGOR URKIAGA URKIZA

PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA

ERANSKINA

a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.

Etorkizuneko arauaren bidez, arazo hauek konpondu nahi dira, besteak beste:

1. 513/2017 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden suteen aurkako babes-instalazioen titularrei ez zaizkie eskatzen instalazioen planoak eta memoria. Eta dokumentu horiek beharrezkotzat jotzen dira instalazioaren adostasun teknikoa bermatzeko.
2. Suteen kontrako babes-instalazioen mantentze- eta berrikuste-eragiketei dagokienez titularrei eta mantentze-enpresei eskatzen zaizkien obligazioen araubidea osatzeko beharra dago.
3. Erregistratu gabeko suteen kontrako babes-instalazioen araubide juridikoa ezartzeko eta argitzeko beharra dago.
4. Egoera batzuk erregulatzeko beharra dago: araudia bateragarria izatea araudi sektorial espezifikoarekin; hau da, erabilera industrialak eta ez industrialak kokatzen diren espazioetako instalazioen egoera (adibidez: merkataritza-gune handietan kokatutako ibilgailu-konponketarako tailerrak, fabriketan kokatutako birgaitze-espazioak, eta abar).

b) Ekimena onartzeko premia eta aukera

Arlo horretako erregulazio juridikoa azken arau-aldaketetara egokitu behar da, eta lortutako esperientzia baliatu behar da arau-eremu hori egituratzen duten tresnak zehazteko.

Ekimen honen bidez konpondu nahi diren arazoetako batzuk —bereziki, erregistratu gabeko instalazioei buruzkoa— 513/2017 Errege Dekretua indarrean sartzearen ondorioz eta instalazio horiei aldizkako ikuskapena egiteko beharraren ondorioz azaleratu dira.

Organo horrek azkenaldian abiarazitako arautze-ekimenek (bereziki industria-segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretua) aukera emango dute etorkizuneko arauaren edukia arrazionalizatzeko eta bertan jasotako erregulazioa egokiagoa eta sistematikagoa izateko.

c) Arauaren xedeak

Arauaren bidez arau-esparru egonkor eta ulergarria finkatuko da, eraginpeko operadore ekonomikoek errazago jarduteko eta erabakitzeko, baina horrez gain, esparru horretako erregulazioaren oinarri izan diren printzipioak indartu eta sustatzeko balioko du arauak.

d) Egon daitezkeen ordezeko irtenbide erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak

Arau berria onartzea egokitzen jotzen da. Ez da beharrezkotzat jotzen sartu nahi diren erregulazio-berrikuntzak beste maila bateko arau batean jasotzea, industria-segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuan eta indarrean dagoen gainerako araudian jasota baitaude.